

## EH Bilduk eta Orain Amurriok Laudioko hiltegia berriz irekitzea eskatu dute

**2021.10.28.** Amurrioko Udaleko Orain Amurriok eta EH Bildu taldeek Laudioko Udal Gobernuak Laudioko hiltegia alde bakarretik ixtea onartezina dela uste dugu, eragindako sektorearen iritzia eta abeltzainen egoera kontuan hartu gabe. Berehalako itxiera horren ondorioak, gainera, ez dira Laudioko udalerrira mugatzen; aitzitik, eragin larria dute Amurrioko eta inguruko eskualdeetako udalerrietan.

Hiltegia ixtean, abeltzainek abereak distantzia handira garraiatu behar izaten dute, eta ondorio negatiboak izaten dituzte bai animalientzat, bai abeltzainen ekonomia prekarioentzat. Eragin hori are larriagoa da animalien garraioaren gainkostua onartu ezin duten familia-ustiategietan.

Gainera, Laudioko Udal Gobernuak iragarritako laguntzak eta hiltegia ixteko alternatibak zehaztu ez izanak ez du erakusten benetan abeltzaintza hobetzeko plan bat diseinatzen ari direnik, ez baita egon alternatiba aztertu ahal izateko elkarrizketarik sektorearekin.

Hiltegia ixteak urrundu egiten gaitu zenbait talde politikok defendatzen omen duten zero kilometroko politikatik, eta arriskuan jartzen ditu kalitate handiko produktuak banatzen dituzten familia-ustiategiak eta harategiak.

Orain Amurriok eta EH Bilduk zerbitzuaren etorkizuna bermatzeko, itxiera erabakia berriz aztertzea eta sektorearekin elkarrizketa bat irekitzea eskatzen dugu. Gainera, kudeaketa publikotik egin beharko litzatekeela uste dugu. Azkenik, EAJ/PNVren Gobernu Taldeari publikoki iritzia emateko eskatzen diogu.

## EH Bildu y Orain Amurrio reclaman la reapertura del matadero de Laudio

**28.10.2021.** Los grupos municipales de Orain Amurrio y EH Bildu en el Ayuntamiento de Amurrio consideramos que el cierre del matadero de Laudio por parte del Gobierno municipal de Laudio de manera unilateral, sin tener en cuenta la opinión del sector afectado ni la situación en la que van a quedar los ganaderos y las ganaderas usuarias del servicio, es inaceptable. Las repercusiones de este cierre fulminante no se limitan, además, al municipio de Laudio sino que afectan gravemente a municipios, cómo Amurrio y comarcas limítrofes.

Con el cierre del matadero obligan a las explotaciones a transportar el ganado a gran distancia, con evidentes efectos negativos tanto para los animales como para las economías, precarias en ocasiones, de las explotaciones. Esta repercusión es aún más grave en las explotaciones familiares que no pueden permitirse el sobrecoste del transporte de los animales.

Además, la falta de concreción por parte del Gobierno municipal de Laudio sobre las ayudas anunciadas y las alternativas al cierre del matadero no ayudan a pensar que realmente se esté diseñando un plan de mejora de la ganadería, ya que no ha existido diálogo con el sector para poder analizar diferentes alternativas.

El cierre del matadero nos aleja de la política de 'kilómetro cero' que dicen defender algunos grupos políticos, poniendo en peligro las explotaciones familiares y carnicerías que distribuyen productos de alta calidad.

Desde Orain Amurrio y EH Bildu exigimos que se reconsidere la decisión de cierre y se abra un diálogo con el sector para garantizar el futuro del servicio, que además pensamos debería hacerse desde la gestión pública. Por último, emplazamos al Equipo de Gobierno de EAJ/PNV para que se pronuncie públicamente.